BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

1234

EBAZPENA, 2012ko otsailaren 13koa, Merkataritzako zuzendariarena. Honen bidez, berrikuntza eta bikaintasuna sustatzera zuzenduta dagoen Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailburuaren 2010eko irailaren 10eko Aginduak ezartzen duenaren arabera, 2010eko ekitaldian onuradunak izan diren entitateen zerrenda jakinarazten da jendaurrean.

Diru-laguntza publikoak emateko orduan ezinbestean bete behar da publizitatearen printzipioa. Hori dela eta, esleipendunei azken dirulaguntzei buruzko ebazpenen berri eman ondoren, Industria, Berrikuntza Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2010eko irailaren 10eko Aginduaren 12. artikuluaren 2. puntuan xedatutakoarekin bat, Merkataritza zuzendariak honako hau:

EBAZTEN DU:

Artikulu bakarra.– Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko Sailburuaren 2010eko irailaren 10eko Aginduan eta Merkataritza eta Turismo sailburuordearen 2010eko irailaren 13ko Ebazpenean Merkataritzan berrikuntza eta bikaintasuna sustatzeko aurreikusitako laguntzei dagokienez, 2010eko ekitaldian onuradun izan diren entitateen zerrenda argitaratzea. Aipatutako diru laguntzak Merkataritzako zuzendariaren ebazpenaren bidez jakinarazi zitzaizkien eranskinean datozen onuradunei.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko otsailaren 13a.

Merkataritzako zuzendaria,
MIREN MAITE VALMASEDA MOCOROA.

ERANSKINA

ONURADUNAK

Erakundea	Kopurua
Bilboko Merkataritza, Industria eta Nabigazio Bazkundea	30.774 €
Arabako Merkataritza eta Industria Bazkundea	31.715 €
Euskaldendak	110.000 €
Euskadiko Merkatarien Konfederazioa- Euskomer	422.796,95 €
Bikaintasunerako Euskal Fundazioa	62.540 €